

9. KOSTUAREN EGITURA

Gure enpresa aurrera eramateko, lehenik eta behin, dirua lortu behar dugu: Horretarako, "Lanbide" izeneko Euskal enplegu zerbitzuari dirua eskatuko diogu eta, hiru pertsona izateagatik, guztira lortuko dugun diru-laguntza 5.100€-koa izango da.

Behin dirua lortu dugunean, diru hori hainbat gauzetan inbertituko dugu. Bat-bateko gastuekin hasteko, gasturik garrantzitsuena, gure produktua patentatzea izango da. Horrek, gutxi gorabehera 1.000€-ko kostua izango du. Bigarrena, 3D inprimagailu bat izango da, bat-bateko gastua eta, 3D inprimagailuko bi makinek, 2.400€ balio dute. 3D inprimagailuak gure produktuaren hainbat prototipo egiteko erabiliko ditugu, gero horiek eskoletara bidaltzeko. Horretaz gain, diseinu berriak egiteko ere erabiliko ditugu.

Kostu finkoekin jarraituz, web-gune bat sortuko dugu. Hau, "Shopify" izeneko aplikazio baten bitartez egingo dugu eta horren kostua, 15€ koa izango da hilabetero.

Kostu aldagarriak dagokienez, sare sozialetan gure produktuaren inguruko publizitatea egingo dugu, hau da, sare sozialetan garrantzia edo influentzia asko duen norbaiti ordainduko diogu gure produktua publizitzeko. 3D inprimagailuak eta tresna guztiak gure taldeko garaje batean gordeko ditugu, hau da, ez dugu ezer ordaindu behar alde horretik. Alabaina, garaje horren argi-indarra ordaindu beharko genukeen. Gainera, horren kostua, aldatu egin daiteke hilabetero. Azkenik, 3D-ko bi makina ditugula kontuan izanda, horien materialak erosi behar ditugu, (PLA izenekoa). Zinta bakoitzak 20€ balio duela jakinda, urtean 1.400€ ordaindu beharko genukeen inprimagailuen materialengatik.

Aipatu dugun kostu guztia, gure enpresa aurrera eramateko lehenengo urtean ordaindu beharko genukeena da. Gure produktuak arrakasta handia edukitzen badu eta gure enpresa handitzen bada, etorkizunera begira, gastu gehiago izango genituzkeen, esate baterako: produkzioaz eta hauen garraioaz arduratuko den talde bat eta web-gunearen kudeaketaz arduratuko den beste talde bat kontratatuko genituzkeen eta.

HASIERAKO KOSTU FINKOAK

1. Produktuaren patentea.
2. 3D inprimagailuak (2). → Diseinu berriak egiteko erabiliko dira.
 - 2.1. Produktua eraginkorra:
 - 2.1.1. Produkzioaz arduratuko den enpresarekin kontaktatu.
3. Web-gunearen sorkuntza (Shopify) → 15€/hilabetero.
 - 3.1. Publizitatea: Sare Soziales bidez.

<u>KOSTU MOTA</u>		
<u>BAT-BATEKO GASTUA</u>	<u>PATENTEA</u>	1.000€
	<u>3D INPRIMAGAILUA</u>	2.400€
<u>FINKOA</u>	<u>WEB-GUNEA (SHOPIFY)</u>	180€
<u>ALDAGARRIA</u>	<u>SARE SOZIALEN PUBLIZITATEA</u>	500€
	<u>LOKALAREN ARGINDARRA</u>	--
	<u>INPRIMAGAILURAKO MATERIALA (PLA)</u>	1.400€
<u>HASIERAKO INBERTSIO TOTALA</u>	<u>GASTU TOTALA</u>	5.500€/urte

DIRU-LAGUNTZAK: Lanbide izeneko diru-laguntzak → 1.700€/pertsoneko bakoitzeko.

- Diru-laguntza totala: 5.100€.

ETORKIZUNEN KOSTU HIPOTETIKOAK

1. Produkzioaz arduratuko den taldea.
2. Webgunearen kudeaketaz arduratuko den taldea
3. Banaketa sistema.